

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Iragarkia

Musika eta Dantza Eskolako kudeatzaileak, «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren Estatutuetako 17.h) artikulua ematen dion eskumenaz baliatuz, 2025eko maiatzaren 30ean, honakoa ebatzi du:

Kudeatzailearen 2025eko martxoaren 7ko Ebazpenaren bidez, Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Irakasle plaza bat, Irakaslea (Biolontxelo) lanpostua, lehiaketa-oposizio bidez txanda librean behin betiko betetzeko deialdia eta oinarri espezifikoak onartu ziren.

Deialdia eta oinarri espezifikoak 2025eko martxoaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 56. zenbakian.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, laugarren oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu behar da.

Bosgarren oinarri orokorrak ezartzen du, halaber, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki-taulan eta Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratuko direla, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendarekin batera.

Oinarri orokorretako 5.2 ataleko bosgarren paragrafoan ezarritakoan oinarrituta, alde batetik, Epaimahai Kalifikatzaile Bakarra sortu da. Epaimahai hori arduratuko da egun berean deitu diren irakasle-plazak betetzeko hautaketa-prozesuetako lehen ariketa garatzeaz eta kalifikatzeaz, bai eta Komunikazio eta Ekoizpen teknikari plaza bat betetzeko hautaketa-prozesuaz ere, guztiek enbor komuna baitute.

Bestetik, prozesu honetako Epaimahai Kalifikatzailea izendatu behar da, eta hautaketa-proben garapenez eta kalifikazioaz arduratuko da, lehenengo ariketa izan ezik.

Oinarri orokorren 7.2.2 atalean ezarritakoaren arabera, lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua ezartzen dira.

Horregatik guztiagatik, Erakunde Autonomoaren Estatutuetako 17.h) artikulua ematen dizkion eskumenetan oinarrituta, Musika eta Dantza Eskolako Kudeatzaileak,

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Ebazpen honen eranskinean jasotakoaren arabera onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea.

10 egun balioduneko epea ematen da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, ez onartzeko izan diren akatsak edo gabeziak zuzentzeko edota esandako zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko. Epe horretan erreklamaziorik edo zuzenketarik aurkeztu ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da.

ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA DE SAN SEBASTIÁN

Anuncio

El Gerente de la Escuela de Música y Danza, en virtud de la Competencia que se le atribuye en el art. 17.h.) de los Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza», con fecha 30 de mayo de 2025, ha adoptado la siguiente Resolución:

Mediante Resolución de Gerencia de 7 de marzo de 2025 se aprobaron la convocatoria y las bases específicas del proceso selectivo para la provisión definitiva por turno libre mediante concurso-oposición de 1 plaza de Profesor/a de la Escuela de Música y Danza de San Sebastián, puesto Profesor/a (Violoncello).

La convocatoria y las bases específicas fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 56, de 24 de marzo de 2025.

Terminado el plazo de presentación de solicitudes, de conformidad con lo dispuesto en la base general cuarta, procede aprobar la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas.

La base general quinta también establece que los nombramientos de los/as componentes del Tribunal Calificador se publicarán en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web del Organismo Autónomo, conjuntamente con la relación provisional de personas admitidas y excluidas.

En base a lo establecido en el párrafo quinto del apartado 5.2 de las bases generales, se ha creado un Tribunal Calificador único que se encargará del desarrollo y calificación del primer ejercicio de los procesos selectivos para la provisión de plazas de Profesor/a que han sido convocados en misma fecha que el presente, así como del proceso selectivo para la provisión de 1 plaza de Técnico/a de Comunicación y Producción, ya que todos ellos tienen un tronco común.

Por otro lado, procede nombrar al Tribunal Calificador del presente proceso que se encargará, a excepción del primer ejercicio, del desarrollo y calificación de las pruebas selectivas.

De acuerdo con lo establecido en el apartado 7.2.2 de las bases generales, se establece el lugar, fecha y hora de realización del primer ejercicio.

Por lo expuesto, en base a las atribuciones que confieren el artículo 17.h) de los Estatutos del Organismo Autónomo, el Gerente de la Escuela de Música y Danza,

RESUELVE

Primero. Aprobar la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas, que se acompaña como anexo a la presente Resolución.

Se concede un plazo de 10 días hábiles, a contar a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, para la subsanación de defectos o omisiones que hubieran motivado su exclusión, o para plantear reclamaciones contra dicha lista. Si dentro de dicho plazo no se hubieran presentado reclamaciones ni subsanaciones se entenderá elevada a definitiva la lista provisional.

Erreklamazioak edota zuzenketak telematikoki aurkeztuko dira, Internet bidez, www.donostia.eus helbidean, dagokion deialdiaren aipamenean, edo Donostiako Udaleko Erregistro Elektronikokoan.

Bigarrena. Epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori, lehenengo ariketa izan ezik, hautaproben garapenaz eta kalifikazioaz arduratuko da, eta honako kide hauek osatuko dute:

La presentación de reclamaciones y/o subsanaciones se realizará de forma telemática a través de Internet en la dirección www.donostia.eus en la reseña de la correspondiente convocatoria o mediante el Registro Electrónico del Ayuntamiento de San Sebastián.

Segundo. Nombrar al Tribunal Calificador que se encargará, a excepción del primer ejercicio, del desarrollo y calificación de las pruebas selectivas, y está formado por los siguientes miembros:

	Titularrak Titulares	Ordezkoak Suplentes
Lehendakaria Presidente/a	Mikel Mate Ormazabal Kudeatzailearen ondokoa Adjunto a la Gerencia	Mikel Romero Laibarra Kudeatzailea Gerente
Idazkaria Secretario/a	Amaiur Cajaraville Garmendia Kontrabaxua-Baxu elektrikoa irakaslea Profesor de Contrabajo- Bajo eléctrico	Jon Elizalde Goñi Tronpeta-Tronboia-Tuba irakaslea Profesor de Trompeta-Trombón-Tuba
Mahaikidea Vocal	Mikel Urdangarin Castro Biolin irakaslea Profesor de violín IVAPeko Ordezkar En representación del IVAP	Igor Intxausti Irazu Gitarra irakaslea Profesor de Guitarra IVAPeko Ordezkar En representación del IVAP
Mahaikidea Vocal	Miren Zubeldia Echeverria Ataulfo Argenta Kontserbatorioko Biolontxelo irakaslea Profesora de Violoncello del Conservatorio Ataulfo Argenta	Maite Etxepare Elbusto Klarinete irakaslea Profesora de Clarinete
Mahaikidea Vocal	Ainhoa Galvany Larrouquere Biolina-Biola irakaslea Profesora de Violín-Viola	Zalao Elizondo Uribe-Echevarria Hizkuntzaren Pedagogia-Piano irakaslea Profesora de Pedagogía del Lenguaje-Piano
Mahaikidea Vocal	Monica Peinó Jimenez Biola irakaslea Profesora de Viola	Judith Montero Imaz Saxofoi Klasikoko irakaslea Profesora de Saxofón Clásico

Deialdiko lanpostuei esleitutako derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetarako, Roberto González de Viñaspre Gonzalo izendatzea bokal titular, eta Manu Arrasate Muguerza ordezkari bokal, IVAPen ordezkari gisa.

Hirugarrena. Lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua zehaztea:

1. ariketa:

Tokia: Musika eta Dantza Eskolaren Atotxako Egoitza (Atotxako zelaia plaza, 3, Donostia).

Eguna: 2025/09/01.

Ordua: 16:00etan.

Laugarrena. Ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki-oholean eta erakunde autonomoaren webgunean argitaratzea.

Donostia, 2025eko maiatzaren 30a.—Mikel Romero Laibarra, kudeatzailea, ordezkatzan, Enekoitz Martinez Echeverria, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Erakunde Autonomoaren Pedagogia zuzendaria. (4131)

ERANSKINA

— Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda:

Para las pruebas destinadas a acreditar el perfil lingüístico preceptivo asignado a las plazas de la convocatoria, nombrar a Roberto González de Viñaspre Gonzalo, como vocal titular, y a Manu Arrasate Muguerza, como vocal suplente, en representación del IVAP.

Tercero. Establecer el lugar, fecha y hora del primer ejercicio:

1.º ejercicio:

Lugar: Musika eta Dantza Eskolaren Atotxako Egoitza (Atotxako zelaia plaza, 3, Donostia).

Día: 01/09/2025.

Hora: 16:00 horas.

Cuarto. Publicar la presente Resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios y en la página web del Organismo Autónomo.

San Sebastián, a 30 de mayo de 2025.—El gerente, Mikel Romero Laibarra, en sustitución, el director pedagógico del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián, Enekoitz Martinez Echeverria. (4131)

ANEXO

— Lista provisional de personas admitidas:

Identifikazio zk. N.º identificación	Izena Nombre	1. abizena 1.º apellido	2. abizena 2.º apellido
***6211**	YI WEN	WANG	WU
***5910**	LUIS	FERNANDEZ	LOPEZ
***4771**	IRATI	EROSTARBE	MAIZTEGI
***6329**	ANA	EGUIAZABAL	ARRUABARRENA
***7027**	MAIDER	ZAPIRAIN	FONTAN